

Getxo >MEETING<



Getxo MEETINGen laburpena, martxoak 2 **Zure laneko sare sozialen edukari buruzko pista batzuk: Instagram eta** **LinkedIn sareetan diozuna benetan adierazi nahi duzuna al da?**

Aurreko saioaren helburua beste ikuspuntu bat lortzea zen. Izan ere, sare sozialetan bilatzen edo aurkitzen gaituztenean, gure zerbitzuen hartzaileek zalantza jakin batzuk izan ohi dituzte, eta garrantzitsua da behar bezala erantzuten jakitea.

Hori dela eta, kontraste-saio hau egin dugu: sei enpresek beren laneko sare sozialak aurkeztu dituzte, dauden bezala, eta Getxo MEETING saioko gainerako parte-hartzaileek, errespetuzko iruzkin konstruktiboen bidez, horiek hobetzen lagundu diete. Zelan? Erakutsi dieten informazioa ikusita zer ulertzen duten adierazi dute, hori besterik ez. Egindako gogoeta batzuk helarazi nahi dizkizugu.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus

• <https://www.getxo.eus/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



Beren kontuak erakutsi dituztenentzat, saioa baliagarria izan da honetarako:

- 1) Kontatzen dutenaz eta kontatzeko duten moduz konturatzeko.
- 2) Nahikoa kontatzen ez dabiltzala jakiteko. Mezua koherentea ez den eta, hortaz, nahasgarria den jakiteko.
- 3) Kontuan izan: bitarteko jakin baten bidez zurekin harremanetan jartzea nahi baduzu, bitarteko horrek ikusgai egon behar du. Erraza. Arreta deitzea ez da nahikoa: zurekin harremanetan jartzeko eta zuri erosteko modua ulergarria izatea lortu behar duzu.
- 4) Ulertzeko ez dela ezer jakintzat eman behar. Gauzak begien bistakoak direla ez pentsatzeko; esate baterako, zerbitzuaren hartzaileek produktuak zuk ekoizten dituzula uste dutela asko suposatzea da, esate baterako. Hobe da gauzak argi esatea eta interpretatzeko ezer ez uztea.
- 5) Nortzuk dira zure zerbitzuen hartzaileak? Zure hizkera zaindu ezazu, zerbitzuaren hartzaileak zurekin identifikatuta sentitu daitezen. Zure interesekoa den inor ez dadin kanpoan geratu. Adibidez, oso enpresa txikiekin egiten baduzu lan eta zure hizkera inperzonal eta hotzegia baldin bada, uste dezakete kontua ez doala haiekin.

Instagram-eko kontuei dagokienez, gehien aipatu zen kontuetako bat izan zen nabarmendutakoen aukera erabiltzea, informazioa arin emateko baliagarria baita. Halaber, kontu horietan ematen den informazioa zaindu beharra dago, nahasmendurik egon ez dadin.

LinkedIn-en, arreta berezia jarriko dugu hizkera koherentea izan dadin, eta nahasmendurik egon ez dadin langilearen (singularra) eta enpresaren (plurala) artean.

Baliagarriak izan zaizkizu emandako pistak? Onena da ariketa horren bidez denek ikasi zutela, bai beren kontua erakutsi zutenek, bai beren iritzia eman zutenek. Lagungarria da beti beste ikuspuntu bat izatea, ezta?

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:

